**GAIA** AUTO ELEKTRIKOAK · **KIROLA** XI. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSAREN EMAITZAK
**IKASBARREN** UDAL LIBURUTEGIKO IPUIN LEHIAKETAN SARITUAK

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko apirilaren 30a/XII. urtea/486. zkia



ITZIAR IRURETA: BOXEOLARIA

## Borrokarako prest!

GEHIGARRI BEREZIA
EZKONTZAK

IL **atlaio**

# 4edideeta

elgoibar ikastola




## Oinarriak:

- Inguruko edozein herritako 12-16 urteko gazteentzat
- Binaka osatutako taldeak
- 15 minutuko irratsaioa prestatu behar da
- Elgoibar Ikastolako irratian emitituko da
- Sariak:
  MP3 erreproduzitzaileak
  Personal Digital Agendak
  Kirol bonoak, zuek nahi duzuena erosteko...
- Izena emateko eta informazio gehiagorako bidali e-maila elgoibar@ikastola.net helbidera zeuon izenekin

**Babesleak**

DANOBAT
www.danobat.com

Radio Eibar

Elgoibarko Udala



## Lifting

Modan dago. Zahar itxurako aurpegiak gaztetzeko operazioa da, zimurrak kendu eta azalekoa gazteagotzen omen duena. Baina lifting egindako aurpegiek, nola esan, halako zera artifizial bat badute, guztiek berdina. Oso garrantzitsua ei da mediku aditu baten eskuetan jartzea, bestela emaitza beldurgarria izan liteke eta. Egunotan, Maalara begira bururatu zaizkit estetika kontuok. Elgoibarri ere zimurrak kendu eta aurpegi berria jarriko diote. Baina, medikuak adituak ote?

Etxezuri etxea, Jarbe eta Alba enpresak eta inguruko etxebizitzak botatzen hasi dira. B egira-begira egon nintzen lehengoan, jubilatuek obrak kontrolatzen dituzten interes bertsuarekin. Garabi itxuraz arin batek kolpe egin eta br000mmm!, historia dira inguruotan bizi izandako istorioak, herriaren itxura bera.

(../)

(7-13-

Urte gutxi batzuetan lifting asko egin dizkiote herriari, azala tira-tira eginda utzi diote, eta ez da orbantxo bat ere gelditu, berdegunetxo bat, esan nahi dut. Badakit betiko leloa dela, baina herritar guztiok milaka aldiz errepikatzen dugun arren gauzak ez dira aldatzen, inongo Udalek ez digu kasurik egiten: ez daukagu parkerik, aisialdirako gune berderik, kulunpixo eta txirristara dezenterik! Metro bat libratzen den bakoitzean, hala! etxebizitzak gora!

O

O

Badakigu Elgoibar bailara-zuloa dela, baina liftinga egiten hasita, zergatik ez diegu halako beharrei behingoz erantzunik ematen?

N

Montse Arregi



## H Z

Ekainaren 13an Europar Parlamenturako hauteskundeak ospatuko dira Europar Batasuneko Estatu guztietan. Gurean, Euskal Herrian, ez da posible izan oraingoan ere indar demokratiko eta abertzaleen artean minimo batzuk adostea Euskal Herriko interesak Europan defendatzeko eta bakoitza bere bidetik doa, estatuetako beste herrietako alderdiekiko aliantzak barneko aliantzen aurretik jarriaz. Baina ez dira aurkeztuko denak baldintza berdinetan. Ezker Abertzaleari debekatu egin zaio azken urte honetan hauteskundeetan parte hartzea, honek dakarren guztiarekin. Oraingo honetan H Z (Herritarren Zerrenda) Plataforma ireki eta anitzak Euskal Herri guztirako programa eta zerrenda aurkezteko asmoa du, oraingo honetan euskaldun guztiok batera bozkatzeko aukera izango baitugu, Ipar zein Hegoaldekook (Diasporakoak alde batera Iagata, noski).

Plataforma honek ez du arazo legalik izango Iparraldean baina ikusteko dago Hegoaldean zer gertatzen den. Ikusteko dago zein den PSOE eta Estatuko botereen jarrera; elkarrizketaren bidea onartzen den edota Aznar eta PPren ildoa nagusitzen den oraindik ere. Ikusteko dago zein presio mota egiten duten PNVk, EAk, IUk eta Aralarrek Madrilen aurrean edo orain arte bezala egoeraz baliatzen jarraituko duten beraien interesen alde.

Dena dela, H Z (Herritarren Zerrenda) legeztatzeko pausoak ematen hasita daude. 40.000 sinaduren xedea jarri dugu Euskal Herri guztirako. Elgoibarren ere hasita gaude sinadurak biltzen. Animo ba!

Pello Mendizahal

Kexak ........................................ 5
MOtZ MotZ ........................................ 6
gehigarria ........................................ 11
kiRolAk ........................................ 28
aGenda ........................................ 32

### AURREKO ALEAN SERGIO FERNANDEZEK SINATUTAKO IDATZIARI ERANTZUNA

Aurreko alean Sergio Fernandezek sinatutako idatziak, ez du merezi azterketa sakonik, izan ere idatzia bera, berez da deskalifikazio hutsa, baina halere onarturik gure eliza honek, "zuk deituriko sektak", izan dituela historian zehar bere akatsak eta alde onak, Xabier Leteren aspaldiko mezuarekin bukatuko nuke nire aipamen hau: "HANDITZEN ZERANEAN IKUSIKO DUZU IXILIK EGOTEAK ZENBAT BALIO DUN",

Besterik gabe, agur

**Maritxu Loiola Ugarteburu**
**72.162.737-F**

### BAKOITZAK BEREA, BAINA BESTEENA ERRESPETATUZ

Pasa den asteko Barrenean argitaratu zen idatzi bati buruzko nire iritzia azaltzeko asmotan idazten dut gaurkoan. Zertaz ari natzaizuen badakizuelakoan banago ere, gogoraraztea izango da onena. "Pilar ikastetxea itxiera orain" zioen testuaren goi partean eta honi jarraituz, kristautasuna, kristauak, Pilar ikastetxea eta antzerakoak mintzagai harturik beraiei buruzko bere iritzia azaltzen zigun Sergiok.

Nik, egia esanik, izugarrizko negargura edo beno, nola esan ere ziur ez dakit, baina sentsazio arraro bat sentitu nuen testu hura irakurtzen nuen bitartean. Eta dena esan behar badut, azkeneko puntua begi bistan izan artean ez nuen guztia txantxa bat zela irakurtzeko esperantza galdu.

Garbi ikus daiteke, hura guztia idatzi zuena ez zela kristaua. Ongi, orain, zera diotsuet, ni neu ere, ez naiz kristaua. Ez naiz fededuna, eta nahiago izaten dut erlijio kontuei buruz gehiegi ez pentsatzea. Baina horrek, edo kristautasunak jarraitzen dituen hainbat pautarekin ados ez egoteak, ematen al dit bada niri, besteen iritzia, ohiturak, bizimodua, sinesmenak eta abar gutxiesteko eskubiderik?

Ez al gara gu, gizakiok, eta gehienbat gaur egungo gizakiok gainera, edozein lekutan erre,spetua aldarrikatzen dugunak?

Liberalak omen gara, edo hori diogu. Liberala al da ba beste pertsona baten bizimodua era horretara kritikatzen duena?

Ba aI du errespeturik kristautasuna edo eta beste edozein bizimodu errespetatzen ez duenak?

Gauza gehiago esatea ere gustatuko litzaidake, baina txoko txiki honetan ez dago denerako lekurik, eta hobe izango da gaurkoz honelaxe uztea.

Soilik gauza bat bukatu aurretik. Ez naiz Pilar ikastetxean ikasia ere, baina herriak duen aukera bat gehiago da, eta nire ustez behintzat, beste guztiek bezala, gure errespetu osoa merezi duena gainera.

Bukatzeko, besarkada handi-handi bat, une honetan, nire pentsakerak irakurtzen minutu gutxi batzuk pasa dituzuenoi, irakurtzeko gogoa ere kendu dizuetenoii, irakurtzerik izan ez duzuenei, nahi izan ez duzuenei, eta baita beste guztiei ere. Nire besarkada hau, banan-banan, gustura asko, guzti-guztiei.

**A.M.A.**
**44172644 - V**

# UrnaunGren begi ezkutua

## -liesfidantzak uxatu



Herriko gazte asanbladari Madalatik aparte dagoen lokala "eman" diote, bere iritzia entzun edo aintzat hartu gabe. Agintariak mesfidatiak direlako gazte horiekiko. Izan ere, ez dira gaztediaren "artaldekoak", ezberdinak dira pentsakeraz, jarreraz. (Baina, gaztea ez bada errebeldea, zer da ba? Gaztaroa, behin bakarrik bizitzen den aroa da; garai ausarta, idealista). Gaztetxea gune askea izan da beti; pentsamendu kritikoaren kabia, gaztediari eskainitako eredu kontsumista-kapitalista-pasiboaren aurkako txokoa. Gaztetxean antolatutako kultur eta bestelako ekitaldietan inposaketa guztien aurka agertu dira gazteak. Inposaketak ez dakarrelako onurarik. Hitz egiteak, ordea, emaitza hobeak ematen ditu.

**Jon Eugi**

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
IT 943 74 41 12
Publizitatea:
n 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Hetbkle informatikoa:
www.topapunea.cornroarren
ARDITARAMLILEA
Elgotarko Izarra

Lusterrzu.s4 Elgotbarko Udala KOORDIRAT7AILEA Ainhoa Andonegit ZUZENDARIA Asiar Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Mate Uriarte PURLIWA7EA Amaia ErlozM NIAKEZATZAILEA Jaione Unahoe GERENTZIA Jon Peli Unguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pelto Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregt, Juande GorostIza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. A7ALEKO ESAERA ZAHARRA Golzon Garateren hburutik INPRILIATEGIA Gertu Koop. E. Trana 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Ee,
ELGO111111I0
1-1111,1 &&&&& TY.11

*Elgoibarko Udalak, Eusico kurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutaka aklizkaria.*

kutxa
parte elun.

1DANOBAT
IMPLPÑAS HrfollMEIrra
GOITI
GRUPO DANOPP1
4N/ FSTAPTA

## KEXAK

♦ Erretxindiko bizilagun batzuk etorri zaizkigu, beraien auzoan baldosa asko solte daudela esanez: "Erretxindiko espaloian baldosak apurtuta eta solte daude. Euria egiten duenean, baldosa horiek zapaltzean, ura ateratzen da, eta hankak busti egiten zaizkigu. Aspalditik daude baldosa horiek egoera kaxkarrean, eta sarritan kexatu izan gara, baina ez digute kasurik egin. Dagokionak baldosak konpondu ditzala, mesedez!".

• Ernakurne batek esan digunez, Loritoneko aldapa oso labainkor jartzen da euria egiten duenean, eta bertatik jaistea oso arriskutsua izaten omen da: "Euria egiten duenean, sekulako beldurrez jaisten gara Loritoneko aldapatik. Oso labaina egoten da, eta behin baino gehiagotan erori izan da jendea. Herriko toki ugari jartzen dira egoera eskasean euria egiten duenean, San Frantzisko kalea bera ere, oso labaina da, eta King-Kong azpia ere, bustitzen denean oso arriskutsu jartzen da".



## TXALOAK

• Guraso talde batek, Elgoibarko Ikastola txalotu nahi du, Haur krosa antolatzeagatik: "Haur krosa antolatu dutenek txalo handi bat merezi dute, honelako ekitaldia antolatzeak lan handia dauka-eta. Haurrez gain, gurasoek ere goiz bikaina pasatu genuen igandean, eta dena oso ondo atera zen".



• Herritar batzuk Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea eta Morkaiko Mendizaie Elkartea txalotu nahi ditu, joan zen apirilaren 22an antolatu zuten Nairobitarra diaporama saioagatik: "Jende asko bildu ginen, eta saio bikaina ikusi genuen. Musika Eskolako gela leku arraroa iruditu zitzaigun hasieran, baina oso leku aproposa dela frogatuta gelditu zen honelako saioak antolatzeko. Merezi izan zuen, jarraitu horrela!".



# Ermuaranbide kaleko lur azpiko zabor kontenedoreak lanean hasteko prest

## Arregitorre auzoan ere jarriko dituzte lur azpiko kontenedoreak

Arrizabat Elkarteak amaitu ditu dagoeneko, Ermuaranbide kaleko lur azpiko kontenedoreak jartzeko lanak, eta laster egongo dira lanean hasteko prest. Arrizabal Elkartetik jakinarazi digutenez, lur azpian zaborra jasotzeko mekanismoa bukatu gabe dago oraindik, baina egun gutxiren buruan dena prest izango omen da. Aurrerantzean, beraz, Ermuaranbieko bizilagunek buzoi tankerako kontederoeetara botako dute zaborra.



Ermuaranbide kaleko lur azpiko zabor kontenedoreak izan dira mota honetako lehenengoak Elgoibarren, baina ez dira bakarrak izango: lurrazpiko kontenedoreen bigarren fasea Arregitorre auzoan egiten ari diren etxebizitzen inguruan joango da, Kiroldegiaren atzeko aldean, alegia. Etxebizitzak eraiki dituen enpresak, egin du dagoeneko lur azpiko zuloa, baina etxebizitzak amaitu eta jabeei giltzak entregatu arte itxaron beharko da, kontenedoreak martxan jartzeko.

**Sistema bizkorra**

Zabor kontenedore berri hauek darabilten sistemak, aurreko zabor kontenedore berdeak aprobetxatzeko aukera ematen du. Kontenedore zaharrak lur azpian kokatuko dira, taparik gabe, eta kanpoko aldean buzoi itxurako zabor ontzi bat besterik ez da ikusiko. Zaborra biltzeko kamioiak urruneko kontrolaz sistema hidrauliko bat jarriko du martxan lur azpiko zabor kontenedore berdeak igotzeko. Kontenedorea espaloiaren alturan geratuko da, eta zabor kamioitik jasoko da zaborra. Kontenedorea igo eta jaisteko prozesua bizkorra da, 20 segundo inguru iraungo ditu. Prozesua bukatu ostean, lur azpiko zabor kontenedorea bere lekura itzuliko da.

## Lau hilabetetan amaituko dute Urasandiko eskailera mekanikoen bigarren fasea

Hasi dira Urasandiko eskailera mekanikoen bigarren faseko obrak. Hasierako fasean lau eskailera zati jarri ziren, eta oraingoan beste bi jarriko dira Antonio Benito harategia eta Haur Eskala artean. Zati bakoitza ezartzeko bi hilabete inguru behar dira, beraz, lau hilabetetan, obrak bukatuta egotea espero da. Obrak bukatu ostean, Urasandi auzoko bizilagunek eskailera mekanikoen sei zati desberdin izango dituzte: lehenengo bi zatiak King-Kong-eko zubitik PSOE-Eeren egoitzaraino doaz. Ondorengo bi zatiak, oraindik egin gabe daudenak, Antonio Benito harategitik Haur Eskolaraino joango dira. Bosgarren zatia, parketik Galizia Plazaraino doa, eta seigarrena, Galizia Plazatik, auzoaren goiko alderaino.



## Apraizko depuradora 2006. urterako egongo da martxan



Aspaldi hasi ziren lanean Apraizko depuradoran, baina obrak atzeratuta doaz. Hasiera batean, Sare Hidrologikoaren Berreskurapenerako Europar Aginteak 2002. urterako Europako ibai guztien garbiketa sistema bukatuta egon behar zela adierazi zuen. Hala ere, luz,apena onartu zuen, eta 2005. urtea ipini zuen amaiera data moduan. Apraizko depuradoraren kasuan, Foru Aldundiak aurten martxan jartzeko asmoa zeukan, baina obrak uste baino gehiago atzeratu dira, eta 24 hilabeteko epea dagoenez lana bukatzeko, 2005. urte amaiera edo 2006. urte hasierarako egongo da martxan Apraizko depuradora.

## Etxezuri baserria, Jarbe enpresa eta Alba Fundizioa botatzen hasi dira



Maala 2 proiektuaren barnean, hasi dira Pedro Muguruza Etorbideko Etxezuri baserria, Jarbe enpresa eta Alba Fundizioa botatzen. Hori dela eta, Gazte Asanbladakoek gaztetxea utzi beharra izan dute.

ingurune honetan 141 etxebizitza berri eraikiko dira, 11 bloketan banatuta. Proiektu honek ingurune guztia aldatuko du: Pedro Muguruza Etorbidea oinezkoentzako soilik izango da. Kotxeentzako errepidea Toletxe ingurutik Txaniduna alderaino joango da, eta hemen errotonda bat egiteko asmoa dago.

## Mufomi fosil eta mineralen museoak 5000 pieza baino gehiago ditu

Narrasti, arrain, ugaztun, intsektu eta abarren fosilak, eta antzinako mineral ikusgarri mordo batek osatzen du Mufomi museoa. Dagoeneko 5000 pieza baino gehiago ditu museoak. Hauen artean, 500.000 urte pasa dituen errinozero iletsu baten eskeletoa da berrikuntza garrantzitsuena. Animalia hau siberiar lautadetan bizi zen. 4 metro inguruko zabalera zeukan eta 3 tona inguru pisatzen zituen. Errinozero afrikarraren aurretikoa da. Ile asko zeukan hotzetik babesteko, eta defentsarako adar izugarria zeukan. Museoan dagoen piezak, metro bateko adarra dauka.

Mufomi museoa Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean dago, eta astelehenetik ostiralera 18:30etik 20:00etara bisitatu daiteke, asteburu eta jaiegunetan berriz, 11:00etatik 14:00etara. Bisita orduak zehazteko 943 741131 edo 608 416683 telefonoetara deitu daiteke.



## Maitane Moreda eta Izaskun Esnaolak Ibilaldiaren aldeko konlzertu baten hartu dute parte Bilboko Arriaga antzoidan



Maitane Moreda biolin joleak eta Izaskun Esnaola biolontxelo joleak Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko Orkestra txiki eta abesbatzarekin Ibilaldiaren aldeko kontzertua eskaini zuten, joan zen apirilaren 25ean Bilboko Arriaga Antzokian.

15 urteko bi musikari gazte hauek hilean behin entseatzen dute orkestrarekin Donostian, eta noizean behin bametegietan kontzentrazioak egiten dituzte. Hurrengo kontzertua, Hernanin eskainiko dute maiatzaren 15ean.

## Bake epailea postua betetzeko deialdia luzatu du Udalak

Elgoibarko Udal Plenoak bake epailea hautatu behar du, eta postu hori betetzeko deialdia luzatu du. Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den momentutik, hamabost eguneko epea izango dute interesatuek beraien eskakizunak, idatziz udaletxean aurkezteko. Azken eguna maiatzaren 14a izango da.

Hautagaiek honako baldintzak bete behar dituzte:

-Espainiar nazionalitatea izan, adin nagusikoa eta Epai Agintaritzako oinarrizko Legeak jartzen duen ezintasunen barne ez egotea.

- Parekaezineko auzietan eta Epai eginkizunak betetzeko ezarritako debekuen barne ez egotea, lanbidezko edo merkataritzako jardueratan izan ezik.

## Izen-abizenak euskaraz jartzeko kanpaina

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak euskal izen-abizenak euskal grafiaz zuzen jartzeko kanpaina jarri du martxan, izen-abizen horiek euskaraz jartzeko tramiteak azken urteotan dezente erraztu direla ikusita eta izen-abizenak aldatu nahi dituztenei laguntzeko asmotan. Informazio gehiago, Udaleko Euskara Sailean jaso daiteke, astelehenetik ostiralera goizez.

Beharrezko dokumentuak:

- NANaren fotokopia
- Erroldatze ziurtagiria (Udaleko idazkaritzan jaso daiteke).
- Hitzez-hitzeko jaiotze agiria (inskribatuta zauden erregistroan jaso daitekeena).
- 18 urte baino gutxiago dituztenei gurasoek egin beharko diete eskabidea.

**1tziar Irureta elgoibartarra boxeoan estreinatuko da maiatzaren 7an**

# GUSTATZEN AL ZAIZU BOXEOA?



## MAITE SORALUZE

35 urte, etxekoandrea

Ez, sekula ez dit interesik piztu. Pertsona bat besterik gabe jotzeak ez nau batere erakartzen. Hala ere, emakume bat boxeoan hastea oso ondo iruditzen zait.

## JOSE FERNANDEZ

76 urte, jubilatua

Egia esanda, ez, baina gustatzen zaionak aurrera egin behar du. Inork ezin dio beste bati nahi duena egitea ukatu. Norberaren gustuak errespetatu egin behar dira.





## MARI CRUZ INTXAUSTI

52 urte, irakaslea

Neri ez zait gustatzen, baina berari gustatzen bazaio aurrera egin dezala, eta onena izan dadila, Elgoibarren izena goraipatzeko. Emakumea izanik meritu haundia daukala iruditzen zait.

## JORDAN GALINDO

11 urte, ikaslea

Bai, asko gustatzen zait. Telebistan ikusten dut noizean behin, eta ordenadorean ere jokatzen dut. Gaur eskolan ere borrokan ibili naiz.





## VICENTE SOTO

18 urte, ikaslea

Noizbait konbateren bat ikusi dut, baina ez dut gehiegi jarraitzen. Hala ere, ondo iruditzen zait emakume bat boxeoan aritzea.

## MARIJE SANCHEZ

28 urte, erizaina

Ez, baina neska honen erabakia oso ondo iruditzen zait. Nik kirol asko praktikatzen ditut, eta ia denak gustatzen zaizkit, baina boxeoak sekula ez dit atentziorik deitu.






*Oreti#t Ee9admvple«*

TKAPELAK, GARA1KVRRAK, DoMINAK
ETA eMEMALDiETARAKo PLAKAK

LAGVNARTEXo TWELKETA
NERRi ElRoLAK
JIMIK
EZKoNTZETARAKo ofteiGURRiAK

Tel.: 943 74 09 63 Mugikorra: 635 73 86 54
BAWBAR BASERRIA San Antolin auzoa (Autopistaren peajearen ondocin)

Familia, bikote eta ba''''s terapia

OREKA PSIKOLOGIA

1 Harreman arazoak:
- Famiiia
- Bikotea
- Kideak

1 Jarrera arazoak
► Porrot eskolarra
► Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...

Edititio Aurrera Urt/alle kalea, 1 - EIBAR

Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

# LOAREN APNEAK

Duela urte gutxira arte, zurrunga egitea broma eta txisteetarako arrazoia zen, eta batez ere, gauza gogaikarria zurrungagtlea jasan behar duenarentzat. Baina zurrungak hain gaitzik gabeak ez direla eta horien atzean patologia garrantiltsua izan daitekeen patologia ezkuta daitekeela jakin zenean, amaitu egin ziren bromatarako arrazoiak. Aipatzen ari garen gaixotasuna Loaren Apnea da, loaldian zehar era intermi tentean eta behin eta berriz goiko amasbideak ixtea eragiten duen gaitza. Biztanleria helduaren artean nagusitzen da batez ere apnea: gizonezkoen %4-6 eta emakumezkoen %2 inguruk jasaten du.

Gaitza ekartzen duten faktoreak

Gaitz hau izateko arrisku handiagoa dute pertsona Iodiek eta amasbideetan aldaketa anatomiko edo funtzionalak (sudur-trenkada okerra, hezur turbinalaren hipertrofia, amigdaletako edo ahosabaiko biloaren hipertrofia...) dituztenek.

Zurrunga guztiak ez dira apnearen ondoriozkoak, kasu askotan ronkopatia kroniko onberak eragiten baititu. Hala ere, zurrunga asko eta bortitzak egiten dituzten pertsonek apnea gara dezakete azkenean eta beraz, funtsezkoa da garaiz diagnostikatzea. Sintomak egoki tratatzeak kasuen ia %100 sendatzea dakar.

Diagnostikoa

Normalean gaixoarekin bizi den pertsona izaten da patologia antzematen lehena. Gaueko sintomak zurrungak, apnea pausa luzeak, itomen sentsazioarekin kolpetik esnatzea edo lo asaldatua dira. Egunekoak, berriz, larregiko logura, suminkortasuna, antsietatea, depresioa, galera intelektuala, libidoa gutxitzea, goizetako buruko mina... Aipatutako sintoma bat baino gehiago elkarrekin agertzen denean, gauekoak bereziki, medikuarengana jo behar da.

Tratamendua

- Obesitatea, kasu hauetan ia bett izaten dena, gogor tratatu behar da.
- Loaren higiene egokia izaten ahalegindu behar da eta ohitura eta ordutegi erregularrak izaten saiatu.
- Alkohola, tabakoa eta botika mioerlaxatzaile, hipnotiko eta lasaigarriatc ekidin behar dira.



Osasunari laruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENeko 943 74 41 12ra



# osasuna

## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, E de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiomotria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itzlar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

# 378 lagunek hartu zuten parte LIburutegHte 11. Marrazki eta Idazian Lehiaketan



"Liburuak badaki hegan egiten" esaldia gaitzat hartuz, 378 lan aurkeztu ziren Liburutegiko X. Marrazki eta Idazlan Lehiaketara; 271 marrazki eta 107 idazlan. 1. mailatik 4. mailara arteko ikasleek marrazki lehiaketan hartu zuten parte, eta 5. eta 6. mailakoek idazlan lehiaketan.

Joan zen apirilaren 22an, Liburuaren Egunaren bezperan izan zen sari banaketa, eta ume mordoa bildu zen King-Kong azpian. Sari ugari banatu zituzten liburutegiko arduradunek eta bertan bildu ziren guztientzat gozokiak banatu zituzten. Lehiaketaren X. urteurrena zenez, sari bereziak eta hainbat sorpresa izan ziren.

## IRABAZLEAK

**Marrazki lehiaketa**

**1. maila:** Nora Kortaberria
**2. maila::** Aitana de la Torre
***Alczesit berezia:*** Verdinica Moreno
**3. maila:** Nerea Garcia
***Akzesif berezia:*** Miren
**4. malla: Andrea** Arce
***Akzesit berezia:*** Nerea Gurrutxaga

**Sari berezia**
Maialen Solabarrieta

**MazIan lehiaketa**
5. maila: Leire Arrillaga
6. maila: Aitor Goikoetxea
Sara Martinez

## Pilar Ikastetxekoak Saloun izan dira

Pilar Ikastxeko **DBH** 2. mailako ikasleak Salon izan ziren ikas bidaian. Lau egun pasatu zituzten bertan, eta bidaia desberdinak egiteko aukera izan zuten, besteak beste, Zaragoza eta Bartzelona bisitatu zituzten. Bartzelonan La Sagrada Familia eta E1 Pueblo Español ikusi zituzten, Zaragozan berriz, Pilar eta La Seo katedralak bisitatu zituzten. Honetaz gain, Port Aventura parkean pasatu zuten egun bat.



## Errazu bertso-eskolako bi ikasle saritu dituzte Sabino Arana Kultur Elkargoa bertso paper lehiaketan




Ikastolako Errazu bertso-eskolako Nagore Larrañagak eta Mikel Olaizolak bigarren saria irabazi dute Sabino Arana Kultur Elkargoa Bertso paper lehiaketan. Errazu bertso-eskolako 12 ikaslek hartu zuten parte lehiaketako bi maila desberdinetan eta bietan izan da elgoibartar bana saritua. Nagore eta Mikelek, hiru Iagunentzako Port Aventura-ra bidaia bat irabazi dute gainontzeko irabazleekin batera joateko.

## Joseba Ramirez ipuin kontalariaren saioa izan zen Udal Liburutegian

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barnean, Joseba Ramirez ipuin kontalariak bi saio eskaini zituen Udal Liburutegian joan zen astelehenean, hilaren 26an. Arratsaldeko 17:00etan eskaini zuen lehenengo saioa 3, 4 eta 5 urteko umeentzat. 17:30ean, berriz, 3. mailako haurrentzako saioa izan zen. Bietan haur mordoska bat bildu zen liburutegian, eta izugarri disfrutatu zuten Joseba Ramirezen ipuinak entzuten.



# E ZKONTZAK

# 2004



*Emaztegaia oraindik ez da elizara iritsi, senargaia urduri erlojuari so. Bikotearen familia eta lagunak sekula jantzi gabeko trajeekin eta ileapaindegitik atera berri daude. Iritsi da emaztegaia azkenean. Traje zuri dotorea darama dandar luze batekin, berandu dator emaztegai guztiak bezala. Ohitura,maitasuna, konpro117isoa... arrazoi desberdinak biltzen dira ospakizun berdinerako. Ezkontzak gizarte errito garrantzitsuak izan dira aspaldiko garaietan, eta gauzak nahiko aldatu badira ere, hala izaten jarraitzen dute.*

**GEHIGARRI BEREZIA**

# EZKON

## Ohiturak

**BA AL DAKIZU ZERGATIK JAZTEN DEN EMAZTEGAIA ZURIZ BERE EZKONTZAN? ZERGATIK DARAMA LORE SORTA? NONDIK DATOR EZKONTZA AURREKO JAIA? EZKONTZA GIZARTE ERRITO GARRANTZITSUA IZAN DA BET1DANIK ETA OSPAKIZUNEAN TRADIZIOA MANTENDU DELA ESAN DEZAKEGU. BOTA DEZAGUN DENBORA ATZERA ETA IKUS DEZAGUN NONDIK DATOZEN EZKONTIARI LOTUTA DAUDEN ELEMENTU BATZUK.**

### EZKONTZA ESKAERA

Aspaldi, jaunek eskularru pare bat bidaltzen zioten beraien ametsetako emakumeari. Honek igandeko mezan jantzita eramaten bazituen, ezkontza eskaera onartd zuela esan ncrhi zuen. Urteen poderioz eskularruak eraztunagatik ordezkatuak izan dira.



### ERAZTUNA

Maximilliano de Austria artxidukeak diamantea zeraman urrezko eraztuna oparitu zion Maria de Burgundiari bere eskua eskatzeko, purutasun, indar eta ausardiaren seinale.Tradizio bat sortu zuen, zalantzarik gabe. Hala ere, XV.mendera arte erregeek bakarrik eraman zitzaketen diamantedun eraztunak.



### EZKONDU AURREKO AGURRA

Emakumeen kasuan, XIX.mendeko Holandara joan behar gara ospakizun hauen sorrera ikusteko. Emaztegaiak ezkontzeko aitaren baimena ez zuenean, honek dotea ukatzen zion eta emaztegaiok dirua bildu behar izaten zuen etxe berria prestatzeko. Horrela opariak biltzeko festak ospatzen ziren.

Senargaien kasuan, soldadu espartanoak izan ziren lagunen artean ezkondu aurreko festa egiten lehenak.

### GENIGARRI BEREZIA

### EZTEI JANTZIA

Britaniako Ana izan zen, Frantziako Luis XII erregearekin ezkontzeko jantzi zuri bat erabili zuen lehena. Ordura arte emaztegaiek eixean zuten jantzi onena erabiltzen zuten ezkontzeko, normalean horia edo gorria izaten zelarik.



### JANTZIAREN DANDARRA

Erdi Aroan, jantziaren dandarrak emaztegaiak errege gorte barruan zuen maila adierazten zuen. Dandar luzeak erregeekin erlazio estuagoa zuela adierazten zuen.

### LORE SORTA

Egiptoko emaztegaiek usain gogorreko belarrak eramaten zituzten espiritu txarrak aldentzeko, gaur egun arte iraun duen ohitura da lore sorta eramatea.



### AITABITXIA

Ohitura hau anglosajoiek sortu zuten, izan ere, emaztegaia bahitzaileengandik babestu beharra zegoen, baita ezkontza izatera ukatzen ziren familiakideengandik. Horregatik, herriko gerlari onena gonbidatzen zuten ezkontzara emaztegaiaren ondoan izateko.

### EZTEI MARTXA

Ezkontza erlijosoak ireki eta isten dituen musika Inglaterrako Victoria printseza eta Prusiako Federico Guillermo printzearen ezkontzan erabili zen lehen aldiz, 1858. urtean.

# Joseba
JATETXEA

FLOREAGA Jauregia

Aizkibel, 10 • AZKOITIA
Tel. 943 85 34 12






*Euskal arkitekturako eraikin nagusienetakoan,*
ezkontzak berezia
Izan behar duelako



*XVI. mendeko jauregi gotikoa paregabeko paisala batean, gaur egungo joere, erreparatzen dien kalitatezko euskal sukalde klasikoaz gozatzeko aukera ematen dute*




**250** lagunentzako jantokia,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: **80 lagunentzat bata,**
eta bestea **erreserbatua, 20** lagunentzat.
Luncherako terraza aproposa.

LOIOLA
HOTEL

**JATETXEA**

Loiolako Inazio
Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18
www.adegi.es/hotelloiola






# Argazkiak

**NORK EZ DAUKA ETXEAN EZKONTZA BATETAKO ARGAZKIREN BAT? EZKONTZA PERTSONA ASKORENTZAT BIZITZAKO UNERIK GARRANTZITSUENETAR1KOA IZAN OHI DA ETA MOMENTU POLIT HORI1ZOZTEA NAHI 1ZATEN DA ARGAZKI EDO BIDEO B1DEZ. HORREGATIK, PROFESIONALAK KONTRATATZERA JOTZEN DU JENDE GEHIENAK OROIGARRIBALIOTSUA LORTZEKO.**



Egun ahaztezin horretako unerik garrantzitsuenak biltzen dituzten argazkiak eta bideoa oroigarri bakarra eta oso baliotsua dira. Ezkontza eta otorduko irudiak jasotzeko profesionalak kontratatzea erraza da, asko aritzen baitira horrelakoetan. Baina aurrez zehaztu behar da argazki kopurua eta bideoaren iraupena eta negatiboen jabea nor izango den; gehienetan agentziak gordeko baititu, horrela kopien salmenta egin ahal izateko.

Argazkilaria edo bideo teknikaria otordura gonbidatu ala ez, ezkontideen esku egongo da, baina ez daude behartuta. Elizarako edo bulego, karpa nahi ezkontza zibila egingo den lekurako loreak aukeratu eta erostea, egun eta leku berean ezkonduko den bikotearekin adostu liteke, gastuak erdibana egiteko.









# OPARI

## Zerrenda

**EZKONTZAREKIN BATERA OPARIAK DATOZ. BI MODU DAUDE OPARI HAUEK EGITEKO: EZKONGAIEK OPARIEN AUKERA ZEHAZTEA ETA BERAIEK HAUTATURIKO DENDAN ORDAINTZEA, EDO GONBIDATUEK DIRU KOPURU BAT UZTEA GERO BIKOTEAK NAHI DITUEN OPARIAK EROSTEKO,**

Duela urte batzuk, gonbidatuei oparia non erosi esateko ohitura gustu txarreko inposaketatzat hartzen zen, edo gutxienez, ez zen egoki ikusten. Gaur egun, ordea, ez da hala gertatzen. Aukera horixe izaten da erosoena ezkongaientzat eta baita gonbidatuentzat ere. Gainera, beti dago aukera beste edozein opari egiteko. Bi modu daude opari zerrenda antolatzeko: lehena, ezkongaiek oparien aukera bat zehaztea eta gonbidatuek horien artetik bat aukeratu eta ezkongaiek hautaturiko dendan edo dendetan ordaintzea. Horrek eragozpen bat dauka: opariak jaso egin beharko dira epe jakin baten barruan eta epe hori pasa ondoren opariak han edukitzea kobratu egingo die dendak. Bigarren aukeran, gonbidatuek diru kopuru bat uzten dute ezkongaiek opariak erosteko aukeratu duten dendan eta gero bikoteak nahi dituen opariak erosten gastatzen du bildutako dirua.





Aukera honen arazoa da opariak aukeratzeko epea iraungi egin daitekeela (denda batzuetan 3 hilabete izaten da) eta egoera horren aurrean behar ez diren produktuak erostea gerta liteke, pentsatzeko astirik ez izanagatik. Horregatik, zerrendaren baldintzak argitzea eta aipatutako egoeretan zer egingo den kontratu batean jasotzea komeni da. Hitzezko kontratua ere aski izan liteke. Eta, printzipioz behintzat, egokiago dirudi oparien zerrendak denda batean baino gehiagotan edo produktu mota bat baino gehiago dituztenetan irekitzea.

Dvnpv&vvïct
,At/&vkillasck
DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ET1KETAK, KARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET
Trenbide, 13 behea • Tel: 943 74 01 87 • Faxa: 943 74 27 40

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunika zio grafikoa
• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAF1A • FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIETAKO 1RAGARKI KOMERTZIALAK


Ezkongaiak 2004
OPARI POSIBLEAK
9%
Deskontua
Maiatzaren 31 arte egindako
ageserbetan %9rainoko desko ua
TEL.: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24
E-MAILA: el@viajesbilbaoexpress.com
www.viajesbilbaoexpress.com
Viajes Bilbao Express
Bilbao Express Bicialak


Kala
LORADENDA
San Frantzisko, 24 - Tel. 943 74 45 16


SOARTE
ARGAZKIAK
Santa Klara, 12
Tel.: 943 74 20 21
argazki-soarte©terra.es

**AZALEA**

ecieveintza

Trenbide kalea, 3
**Tel. 943 74 03 10**



**rBlak**

**ileapaindegia**

San Inozio, 4• Tel: 943 74 27 25

JOSE AVON101

LEAPAINDEGIA

E-rrosario, 30 Tel: 943 74 14 92

**ELENA**

**ileapaindegia**
**depilazio elektrikoa**

San Frantzisko, 49-1 • Tel: 943 74 11 89

**IDAMA**

I LEAPAINDEGIA

**Santa Ana, 7 Tel: 943 74 40 26**

# zure eguno o

• DONNA •

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza,13
Tel. 943 74 43 88



**NAHIA**

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 14
Tel. 943 75 51 01 · MENDARO



**magu's**

Ileapaindegia-Edergintza

San Roke, 6 behea
Tel. 943 ,4 34 91

**Maria Urizar**

**Ileapaindegia**
**Solariuma**

Errosaria, 9-1 • Tel. 943 74 44 89

**Sidney**

**ILEAPAINDEGIA**

San Frantzisko, 26-1 Tel: 943 74 09 51

**ITZALA:**

Ede)1~1111

San Frantzisko, 49 1 esk.
Tel: 943 74 43 03

**Tximak**

**II,EAPAINDEGIA**

**Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57**

**XABiER**

ILEAPAINDEGIA

San Barblame, 13 Tel: 943 74 19 97


LASA
LASA Jatetxean,
ezkontzaren unea
sekula ahaz ez dezazun
eta zure bizitzako
oroigarri ahaztezina
izan dadin
lan egiten dugu.
Ozaeta Jauregia • Tel: 943 76 10 55 • Web: restaurantelasa.com • BERGARA


Blanca
loradenda
Enkargatu eta ordaindu telefonoz
Eixez eixeko zerbitzua
TeL 943 20 88 47 - 943 20 25 32 Isasi, 16 EIBAR


SASTRERIA
Senargai,aitabitxi eta gonbidatuentzat trajeak
Trajeak neurrira egiteko
aukera eskaintzen dugu
Zure gorputz eta ideietara
egokitzen dugu trajea
Saimenta: Arragueta, 3
Erakusketa: Arikitxaneko, 1
4 17 - 20600 EIBAR

# LYZAIDE

*KAFETEGIA*
*JATETXEA*

*Ospitale parean*
Mendarozabal, z/g
Tel: 943 75 51 44/75 61 66
MENDARO





- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak





# ARAMBURU

BITXIDENDA





**San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35**

# 50 urte

## Jose Asensio *eta Angeles Perez*

***1936-37K0 GERRAK EUSKAL HERRMN ERAGIN ZITUEN M1LAKA IHESLARI ETA ERREFUXIATU HAIEN ARTEAN IZAN ZEN KATEGOR1A BEREZI BAT, KONPROMEZU POLITIKOAREKIN ZERIKUSIRIK EZ ZUEN JENDE MULTZO HANDI BATENA: HAURRAK. GERRAK EUSKAL HERRIAN 1RAUN ZUEN BITARTEAN, BATEZ ERE 1937K0 MAIATZEAN ETA EKAINEAN, BILBOTIK MILAKA HAUR ERBESTERATU ZIREN. BIZKAIA, GIPUZKOA ETA ARABAKO GERRAKO HAURREN ELKARTEAK 30.000 UME INGURU EBAKUATU ZITUITEN. 4.000 INGALATERRARA, 3.000 BELGIKARA ETA FRANTZIARA 10.000 BAINO GEHIAGO. DANIMARKARA ERE JOAN ZIREN BATZUK. GARAI HARTAKO EUSKO JAURLARITZAREN ARTXIBATEGI OFIZIALETAKO DATUAK, ORDEA, ASKOZ TXIKIAGOAK DIRA. 15.000 UME, HONELA BANATURIK: FRANTZIA (5.305), ERRESUMA BATUA (3.282), BELGIKA (3.128) ETA SOBIET BATASUNA (1.489), BESTEAK BESTE.***



Betirako markatuak geratu dira haur haiek, eta gaur egunean ere, aiton-amonak direnean ere, gerrako umeak dira. Sobiet Batasunera joan zirenek besteek baino esperientzia latzagoa bizi izan zuten. Hogei urte iraun zuen ume haien erbesteratzeak.

Baina Espainiako Gerra amaitu zen 1939an, frankistek irabazi zuten, eta erregimen harekin Sobiet Batasunarekin inolako traturik izatea ezinezkoa zen. Koskortzen ari ziren ume haiek han segitu zuten. 11. Mundu Gerra iritsi zen gero, 1941an Hitlerrek Sobiet Batasuna inbaditu zuenean, eta harekin kalamidade handiak hasi ziren guztientzat. Haurrak ebakuatu egin zituzten tokiz toki.

Mundu Gerra 1945an amaitu zen, eta harekin piztu ziren esperantzak berriz itzul zitezkeela Euskal Herrira. Stalinek zapuztu zuen hura. Stalinek dekiaratu zuen haurrak Errepublikatik hartu zituela eta Errepublikari itzuliko zikiola, Franco hil ondoren. Halabaina, Stalin hil zen Franco baino lehenago, eta 1956an, Nikita Khrustxev zela agintari, Nazioarteko Gurutze Gorriaren bitartez eginiko artekaritzari esker itzuli ziren umeak.

Gerra amaitu ondoren eta itzuli arte, bakoitzak bere bizibidea egin zuen, herritar sobietar arruntek bezala. Jose Asensio eta Angeles Perez dira adibide. 13 eta 6 urte zituzten Sobiet Batasunera erbesteratuak izan zirenean. Haurtzaro eta gazteriko urteak latzak izan ziren, istorio harrigarriekin. Erbestean maitemindu ziren, baita bertan ezkondu ere. Ez zen eztei-oturantzarik egon, ezta eztei bidaiarik ere, baina gazteak ziren eta ilusiorik ez zuten falta. Baina, iritsi zen eguna. Sobiet Batasuneko hoztasuna familia giroko berotasunagatik aldatu zen azkenean. Beraien bizitzako 20 urte erbestean igaro ondoren, beraien sorterrira bueltatu ziren. Ez zen erraza izan itzulera, Franco oraindik gobernaburu baitzen eta ume erbesteratuak izango ziren bizitza osorako. Bi urteko epe bat eskaini zieten hemen moldatzen ez baziren atzera Sobiet Batasunera itzultzeko. Batzuek hala egin zuten, Francoren erregimen itogarria ezin jasanik. Beste batzuek Euskal Herrian berregin zuten bizitza, Jose eta Angelesek bezala.

Hamaika bizipen igarotakoak dira Jose eta Angeles, baina aurten urrezko ezteiak betetzen dituzte, 50 urte daramatzate ezkonduta. Sobiet Batasunean maitemindu ziren, bertan 20 urte gogor igaro zituzten, eta zoritxarrak beraien arteko erlazioa sendotu zuen. ***Zorionak bikote familia osoaren partezl***

EZKONTZA

# Datuak

**ESPAINIAKO ESTATIST1KA INSTITUTUAREN ARABERA, 1999AN 206.048 BIKOTE EZKONDU ZIREN ETA HORIETATIK 1A 155.000 (%75) ERRITO KATOLIKOAREN BIDEZ. EZKONTZETAKO PROTAGONISTA GEHIENAK GAZTEAK IZATEN DIRA; HALA ERE, EZKONGAIEN ADINA GERO ETA ALTUAGOA DA ETA GAUR EGUNGO PROFILA ONDORENGOA IZANGO LITZATEKE: 30 URTETIK GORAKO GIZONEZKOA ETA IA 28 URTERA IRISTEN DEN EMAKUMEA. BANANTZEAK, BERRIZ, %50EAN GEHITU DIRA 1990 ETA 1997 ARTEAN ETA DIBORTZIOAK %48AN; 1990EAN 36.272 BANANTZE ETA 23,191 DIBORTZIO IZAN BAZIREN, 1997AN 54.728 BANANTZE ETA 34.147 DIBORTZIO IZAN ZIREN.**

### ELIZAZ EDO EPAITEGIAN, BAINA OTORDU EDERRAREKIN

Bikote gehienek ezkontzea erabakitzen dute familia sortzeko, ezkontzeko unea dezente atzeratzen den arren. Eta ezkontza zibilen kopurua gora doan arren lautik hiruk Elizaz egiten ziren 2000. urtera arte.

